4 EDUCACIÓN DE CALIDAD

ETORKIZUNA ERAIKITZEN DUGU

HEZKUNTZA gure tresna

2030 HELBURUA

Bermatu **kalitatezko hezkuntza inklusibo eta bidezkoan parte hartzea.**



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK

HAUR HEZKUNTZA

2020-2021 IKASTURTEA

JARDUERA PROPOSAMENAK: TUTORETZAK

1. JARDUERA: BERDINAK GARA

Zer gai lantzen diren: hezkuntza inklusiboa

Gutxi gorabeherako denbora: 4 saio, 45 minutukoa bakoitza

LABURPENA:

David McKee-ren 'Elmer' ipuinaren bidez, pertsona guztiak berdinak ez garela ulertzea, bakoitzaren ezaugarriak, interesak, gaitasunak eta ikaskuntza-premiak alde batera utzita.

HELBURUA:

Aniztasun funtzionala duten pertsonen errealitateaz kontzientzia hartzea, eta pareko gisa ikustea, haien ezaugarriak direnak direla.

MATERIALA:

- 'Elmer' ipuina: https://www.youtube.com/watch?v=5zG7WQO8RfQ
- 1. eranskineko irudiak. Bi iruditan, aniztasun funtzionala duten bi haur ikus daitezke jolasean, eta beste bietan, aniztasun funtzionalik ez duten haurrak ikus daitezke, jolasean horiek ere.
- Zapiak
- Aulkiak
- Pilota bat kaskabiloekin eta pilota normal bat



- Plastikozko botilak (ikusi adibideko irudia)
- Koloretako zelofan papera
- Kola eta pintzelak



GARAPENA:

Lehenengo saioa

Hasteko, Elmerren ipuina irakurriko dugu. Irakurketarekin hasi aurretik, eta gogoeta sustatzeko, ipuinaren azalari eta izenburuari buruzko galderak egin ahal izango dira.

Honako galdera hauek egin daitezke, adibidez:

- Nor izango ote da Elmer? Zer izango da (animalia bat, pertsona bat, helburu bat, etab.)?
- Zergatik ote daude hainbeste kolore azalean?
- Azaleko elefanteari erreparatu diozue? Zergatik izango ditu hainbeste kolore?

Horrela, ipuinaren sarrera egiteaz gain, parte-hartzaileek aurreikuspenak egin ahal izango dituzte. Interesgarria izango litzateke ikasgelako arduradunak arbelean jasotzea, ipuina amaitutakoan gogora ekartzeko.

Ipuina irakurtzerakoan, parte-hartzaileei zenbait galdera egitea komeni da, ipuina ondo ulertzen ari direla ziurtatzeko.

Ipuina amaitutakoan, gogoeta sakonenak bilatzen saiatuko gara. Honako galdera hauek erabil daitezke:

- Zuen ustez, zer antzekotasun zuen Elmerrek gainerako elefanteekin? Eta zer desberdintasun?
- Ipuineko pertsonaiaren batek Elmerren itxuraz barre egin du? Ondo dago besteez barre egitea?
- Eta zuek, zer antzekotasun dituzue? Eta zer desberdintasun?

Bigarren saioa

Hurrengo jarduera egiteko, 5 pertsonako taldeak egingo ditugu, gutxi gorabehera (ikasgelako haur kopuruaren arabera), ikasleen parte-hartzea errazteko. Aniztasun funtzionala duten eta ez duten pertsonen irudiak banatuko dira (ikusi 1. eranskina), eta beren irizpideen arabera sailkatzeko eskatuko diegu. Ikasgelako arduradunak ikusten badu taldeei zaila egiten zaiela irizpideak zehaztea, zenbait adibide emanez lagun diezaieke.

Behin taldeek beren lana amaitutakoan, bateratze-lana egingo da, talde bakoitzak bere irizpideak azal ditzan. Une horretan, sortzen diren zalantzak argitu ditzakegu: zergatik behar duen pertsona batek gurpildun aulkia mugitzeko, edo inplante bat, etab. Aurreko saioan ikusitako Elmerren ipuina gogoratuko dugu.

Amaitzeko, zenbait galdera egingo ditugu, pertsona guztiak berdinak ez garela uler dezaten, bakoitzaren ezaugarriak alde batera utzita: hau da, parte-hartzaile bakoitzak bere denbora, espazioa, etab. behar ditu. Azken batean, bakoitzak bere premiak ditu.

- Zuen ustez, irudian gurpildun aulkia behar duen pertsona ondo sentituko litzateke inork ez balu berarekin jolas egingo? Eta zuek ondo sentitzen zarete inork ez badu zuekin jolas egin nahi?

- Zuen ustez, ondo dago pertsona talde batek beste bat baztertzea, arrazoia edozein izanik ere?

- Zergatik aukeratu zuten elefanteek, ipuinaren amaieran, Elmer bezala margotzea?

Hirugarren saioa

Saio honen hasieran, ikasleei gogoraraziko diegu ipuineko gainerako elefanteek zergatik aukeratu zuten Elmer bezala margotzea... Orain, gure txanda da!



Jolas egokituetara jolastuko gara gaur, eta, denbora jakin batez, ezingo ditugu hankak mugitu; beranduago, berriz, ez dugu ikusiko.

- Lehenengo jolasean, saskibaloian arituko gara. Horretarako, aulkiak jarriko ditugu jolastokian. Gurpildun aulkiak lortzea nahiko zaila denez, ikasgelako aulkiak erabiliko ditugu, baina ezingo dira mugitu. Horretarako, garrantzitsua da aulkiak nahiko gertu kokatzea, parte-hartzaileek mugitu gabe pasatu ahal izateko baloia elkarri. Saskiratzeko, baloia elkarri pasa beharko diote, tokitik mugitu gabe. Bi talde egin daitezke, ikasle guztiek parte hartu ahal izateko eta jokoa arinagoa izateko.

- Bigarren jolasa golball izango da; ikusmen faltarekin esperimentatuko dugu, eta parte-hartzaileek entzumena garatuko dute. Horretarako, 3 pertsonako taldeak egingo ditugu, eta parte-hartzaile guztiek estalita izango dituzte begiak (zapi batekin). Soinua egingo duen pilota bat (kaskabiloekin) beharko dugu, eta pilotak zorua ukitu beharko du beti.

- Jolasaren helburua da kontrako taldearen atean gola sartzea. Eskuarekin bota behar dute pilota, eta, gola sartzeko, parte-hartzaile bakoitzak behin bakarrik bota ahal izango du pilota. Beste taldeko kideek, ikusi ezin dutenez, kaskabiloen soinuari erreparatu beharko diote, eta pilota gorputzarekin gelditzen saiatuko dira, lurrean etzanez.



Laugarren saioa. Irudimena nagusi



Azkeneko saio honetarako, parte-hartzaileek Elmer marraztuko dute, nahi duten bezala.

Parte-hartzaile bakoitzari moztutako botila bat emango diogu (ikusi adibidea), bai eta hainbat koloretako zelofana ere. Haur bakoitzak erabakiko du Elmer nolakoa izatea nahi duen: kolore askotakoa edo kolore bakarrekoa. Zelofana botilan jartzeko, kola eta pintzel bat erabiliko dira.

Ikasgelan ikasle asko badira, binaka egin dezakete elefantea.

2. JARDUERA: PERTSONA GUZTIOK AUKERA BERBERAK MEREZI DITUGU

Zer gai lantzen diren: pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea

Gutxi gorabeherako denbora: 3 saio, 45 minutukoa bakoitza

LABURPENA:

Hainbat saiotan, pertsona guztiek hezkuntza jasotzeko eskubidea dutela landuko dugu.

HELBURUA:

Hezkuntza pertsona guztion eskubidea dela ulertzea eta barneratzea.

MATERIALA:



- 8 guraize eta zeloa
- Haril bat, edozein koloretakoa
- 6 kartoi mehe
- Hainbat egoera (ikusi 2. eranskina)
- Lanera joan behar dutelako eskolara joan ezin diren haurrak.
- Eskolara joaten diren haurrak.
- Anaia-arreba txikiagoak zaintzen dituzten haurrak, eta horregatik eskolara joan ezin direnak..

GARAPENA:

Lehenengo saioa.

Hiru taldetan banatuko ditugu ikasleak. Talde bakoitzak hainbat material izango ditu.

- 1. taldea: haril bat, edozein koloretakoa, 7 guraize, 5 kartoi mehe
- 2. taldea: zeloa, hari-zati txiki bat
- 3. taldea: kartoi mehe 1, guraize 1, zelo-zati txiki bat

Talde guztiek paperezko hegazkinak egin beharko dituzte kartoi meheekin, eta hegazkinak paretan zintzilikatuko dituzte. Paperezko itsasontziekin ere egin daiteke, adin hauetan errazagoak baitira, eta irudian ikusten den moduan egin daitezke.



1.URRATSA



2. URRATSA



3. URRATSA

Kartoi mehe bakoitzetik 3 itsasontzi edo hegazkin irtengo dira, eta, beraz, hiru zatitan zatituko dituzte. Jarduerarekin hasi aurretik, ikasgelako ardura duen pertsonak itsasontziak edo hegazkinak nola egin behar dituzten azalduko die, eta kartoi mehean nola itsatsi behar duten.

Talde guztiek ez dutenez hegazkinak egiteko beharrezko materialak, taldeen artean negozia dezaketela esango diegu.

20 minutu inguru igarotakoan, arduradunak jarduera geldituko du, eta aztertu egingo dute. Horretarako, honako galdera hauek egin daitezke:

- Talde guztiek material berak dituzue?
- Bidezkoa da talde batek beste batek baino material gehiago izatea?
- Ados jartzea lortu duzue?

Jarduera honen helburua da parte-hartzaileak ulertzea pertsona guztiek ez dituztela eskubide berberak.

Bigarren saioa.

5-6 kideko taldetan banatuko dira parte-hartzaileak, ikasleen parte-hartzea errazteko. Talde bakoitzari hainbat egoera banatuko zaizkio (ikusi 2. eranskina), eta horietan ikusten dutena deskribatu beharko dute. Talde guztiek irudi guztiak deskribatu ondoren, gelako arduradunak parte-hartzaileekin hitz egingo du, galderarik edo zalantzarik dagoen ikusteko.

Orain, talde bakoitzak egoera bat antzeztu behar du, eta gainerako taldeak zer antzeztu duten asmatzen saiatuko dira. Denbora izanez gero, talde bakoitzak beste egoera bat antzeztu ahal izango du.

Azkenik, ikasleek landutako kontzeptuak barnera ditzaten, gogoeta sustatzeko galdera batzuk egingo dizkiegu:

- Haur batzuk zergatik ez ziren eskolara joaten?
- Zuek lan egiten duzue? Zergatik lan egiten dute haur horiek?
- Zuen ustez, bidezkoa da haur horiek eskolara ez joatea?

Hirugarren saioa.

Azken saio honetan, pentsamendu-errutina bat egingo dute. Errutina hori egiteko, bi argazki hartuko dituzte. Batean, haur batzuk ikusten dira eskolan, eta, bestean, haur txiki bat bere anaia txikia zaintzen ikusten da (ikusi 3. eranskina).

Pentsamendu-errutina hau egiteko, hiru alderdi hauek izan behar dituzte kontuan:

- **Zer ikusten duten.** Irudian ikusten diren gauzak esan beharko dituzte (adibidez haur bat anai-arrebak zaintzen/etxe bat/haurra sukaldean dago...)
- **Zer pentsatzen duten.** Kasu honetan, irudietan gertatzen denari buruz pentsatu beharko dute (adibidez Ez dira eskolara joaten, senideak zaindu behar dituztelako).
- **Zer galdetzen dioten beren buruari.** Azken kasu honetan, nahi duten guztia galdetu ahal izango dute (adibidez ez dira inoiz eskolara joan?)

Pentsamendu-errutina egiten den bitartean, gelako arduradunak parte-hartzaileek esaten dutena idatziz jaso ahal izango du.

Behin pentsamendu-errutina amaitu ondoren, parte-hartzaile guztien artean eta, beharrezkoa izanez gero, lagunduta, errutinaren hirugarren puntuan ("Zer galdetzen dioten beren buruari") sortutako galderei erantzuten saiatuko gara..

3. JARDUERA. EKITATEA HEZKUNTZAN

Zer gai lantzen diren: berdintasunaren eta ekitatearen arteko desberdintasuna

Gutxi gorabeherako denbora: 3 saio, 45 minutukoa bakoitza

LABURPENA:

Helburua da ulertzea pertsona bakoitza desberdina dela, eta, horregatik, pertsona bakoitzari jarduera egiteko behar duena eskaini behar diogula.

HELBURUA:

Berdintasunaren eta ekitatearen esanahia ulertzea eta barneratzea.

MATERIALAK:

- Irudiak (ikusi 4. eranskina)
  - Lehenengo irudian, ikusmen urria duen haur bat ikus daiteke ikasgela batean.
  - Bigarren irudian, heldu bat, nerabe bat eta haur bat futbol-partida bat ikusten ari dira, hesi baten atzean. Hiru kaxa daude, eta pertsonak kaxa horien gainean daude.
- Zelofan-paper laranja, betaurrekoak egiteko
- Klarion laranja
- Jostailu bat
- Aulkiak
- Soka
- Sagar bat
- Lastairak



GARAPENA:

Lehenengo saioa.

Lehenengo jarduera honetan, 6 pertsonaz osatutako taldeak egingo ditugu. Bi irudi banatuko dizkiogu talde bakoitzari, eta taldeek irudien inguruko gogoeta egin beharko dute. Horretarako, gelako arduradunak bi aukera emango dizkie:

- Lehenengo irudiarekin hasiko gara:

Galdera hau egingo diegu: zer ikusten duzue irudian? Zer premia ditu ikusmen urria duen pertsona batek?

Orain, eskatuko die imajina dezatela gelan irakasleak ikasle guztiei esaten diela arbelean egindako marrazki bat kopiatzeko... baina ikusmen urria duen pertsonak ez du ondo ikusten arbela; zer egingo dugu?

- Bigarren irudia ikusiko dugu orain:

Galdera hau egingo diegu: zer ikusten duzue irudian? Zer egin dezakegu kaxekin?

Ikus daitekeenez, galderak errazenetik zailenera doaz; hau da, lehenengo galderan, ikusmen urria duen pertsona horrekin zer egin dezakegun esaten diegu nolabait, eta bigarren galderan, berriz, ez diegu ezer esaten; besterik gabe, kutxekin zer egin dezakegun galdetzen diegu.

Ondoren, talde handira itzuliko gara, eta gelako arduradunak honako galdera hauek egin diezazkieke, gogoeta sustatzeko:

- Ondo iruditzen zaizue pertsona horrek arbela ez ikustea? (1. irudia)
- Ikusmen urria duen ikaskideari marrazki handiagoa emango bagenio, zer irudituko litzaizueke? (1. irudia)
- Ondo irudituko litzaizueke pertsona bakoitzari kaxa bat baino gehiago ematea? (2. irudia)

Amaitutakoan, hirugarren irudia erakutsiko diegu.

Bigarren saioa.

Jarduera honetan, "PICTIONARY"-ren antzeko jolas bat egingo dugu. Marrazkiaren bidez hitzak asmatzea da helburua, baina zailtasun gehigarri batekin. 5 laguneko taldeak egingo dira, guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten.

Taldeko pertsona batek hitz bat pentsatuko du, beste batek marraztu egingo du, eta

beste hiru lagunek asmatu egin behar dute. Hiru pertsona horietako batek kristalen ordez zelofan-paper laranjarekin egindako betaurrekoak eramango ditu, eta marrazkia egiten duen pertsonak klarion laranjarekin egingo du, betaurrekoak dituen pertsonak ikusteko zailtasunak izan ditzan.

Hainbat aldiz jolastu ondoren, azkeneko 20 minutuetan talde handian arituko gara berriro, eta irakasleek zenbait galdera egingo dizkie, talde-gogoeta moduan:

- Nola sentitu zarete margoaren kolorea ez zenutenen ondo ikusten? Nola konpon daiteke hori?

Azkenean, azalduko diegu badirela beren ezaugarriengatik ondo ikusten ez duten pertsonak: ondo ikusten ez dutenak, ondo hitz egiteko arazoak dituztenak, etab.; arrazoi horregatik, batzuetan, ez dira eroso sentitzen gure ohiko jolasekin. Hau da, jolasa ohiko arauak erabiliz egingo bagenu, pertsona horiek ezingo zuten jolas egin; kasu horretan, berdintasuna erabiltzen ariko ginateke, pertsona guztiek modu berean jolas egiten baitute, parte-hartzaile bakoitzaren premiei erreparatu gabe (1. jardueran egin dugun bezala).

Aldiz, ikusi ezin genuenean beste kolore bat erabili izan bagenu, adibidez, edo beste pertsona batek lagundu izan balio, ekitatea erabiltzen ariko ginateke, pertsona bakoitzari behar duena ematen diogulako.

Hirugarren saioa.

Azken saio honek hiru zati ditu. Lehenik, gelako arduradunak jostailu bat zintzilikatuko du (haurrak ez iristeko moduan). Hauek dira arauak:



- Pertsona guztiek parte hartu behar dute
- Ezin dugu ezer erabili gainera igotzeko
- Jostailua lehenago hartzen duenak irabaziko du

Hainbat segundo utziko ditugu, eta irakasleak hartuko du jostailua.

Bigarrenik, irakasleak labirinto bat egingo du lastairekin; haurrak soilik sartu ahal izango dira, labirintoaren neurriagatik. Hauek dira arauak:

- Pertsona guztiek hartuko dute parte jolasean
- Labirintoaren bukaerara iristen direnek irabaziko dute
- Labirintoaren paretak ezin dira mugitu

Nola jokatzen duten behatuko dugu, eta irakaslea labirintoan sartu ezin dela ikusten dutenean nola erantzuten duten.

Azkenik, ikasgelako arduradunak sagar bat zintzilikatuko du goitik, baina oraingo honetan haurrak aulki bat izango du, eta arduradunak ez. Hauek dira arauak:

- Pertsona guztiek parte hartu behar dute
- Pertsona batek baino gehiagok har dezake sagarra
- Aulkiak erabil daitezke

Jolasak amaitutakoan, gogoeta sustatuko da, honako galdera hauekin:

- Zer jolas gustatu zaizue gehien? Zergatik?
- Zein iruditu zaizue bidezkoena, guztiek irabazi ahal izateko?

1. ERANSKINA









2. ERANSKINA

Lanera joan behar dutelako eskolara joan ezin diren haurrak:





Eskolara joaten diren haurrak:





Anai-arreba txikiagoak zaintzen dituzten haurrak, eta horregatik eskolara joan ezin direnak.





3. ERANSKINA






4. ERANSKINA



1. irudia



2. irudia



3. irudia

OTOITZAK

ASTELEHENA HAUR GUZTIEK IZAN DEZAGULA ESKOLARA JOATEKO AUKERA!

Haur askok ez dute eskolara joateko aukerarik, etxean lanean gelditu behar dutelako edo eskolara joateko dirurik ez dutelako...

Otoitza

Jesus gure laguna, haur guztiok

eskolara joateko aukera izan dezagun

eskatzen dizut.

Hainbeste gauza daude ikasteko!

Eta oso garrantzitsua da

gure adineko beste haur batzuekin egotea!



ASTEARTEA HEZKUNTZA GUZTIONTZAT

Pertsona askok ez dute ikasteko aukerarik, hainbat arrazoirengatik. Batzuetan, ordaintzeko arazoak dituztelako; beste batzuetan, toki urrunetan bizi direlako eta ikastetxerik ez dagoelako; eta, beste batzuetan, neskak direlako.

Otoitza

Jesus, haur guztiok

ikasteko aukera izan dezagun

eskatzen dizut,

bakoitzak bere ezaugarri eta egoeraren arabera,

gure artean hesirik sor ez dadin.



ASTEAZKENA NIK ERE ESKOLARA JOAN NAHI DUT

Munduko zenbait tokitan, neska asko ezin dira eskolara joan, beren anaia-arreba txikiak zaindu behar dituztelako, etxea garbitu behar dutelako eta bazkaria prestatu behar dutelako.

Otoitza

Jesus, eskolara joan ezin diren
neska guztien alde eskatzen dizut,
euren familiak ohar daitezen
zeinen garrantzitsua den hezkuntza,
eta eskolara joaten utz diezaieten.



OSTEGUNA HEZKUNTZA INKLUSIBOAREN ALDE

Hezkuntza inklusiboak aintzat hartzen du ikasle guztiak desberdinak direla. Gutako bakoitzak ikasteko ezaugarri, gaitasun eta premia desberdinak ditugu, eta hezkuntza-sistemek kontuan izan behar dute hori, errealitate horri modu egokian erantzuteko.

Otoitza

Jesus gure laguna, ea lortzen duten

ikastetxe guztietan bakoitzak

gure premien arabera

ikas dezagun,

eta ea inork ez gaituen bidean gogogabetzen.



OSTIRALA DESGAITASUN BAT DUTEN HAUR GUZTIEN ALDE

Desgaitasun bat duten haurrek premia bereziak dituzte, eta hezkuntza-sistemako talde baztertuenetako bat dira.

Herrialde askotan, desgaitasun bat duten haur gehienek ez dute inolako hezkuntzarik jasotzen, desgaitasun larriak dituztenek bereziki.

Otoitza

Jesus, desgaitasun bat dugun haur guztiak

hazteko orduan aukera-berdintasuna izan dezagun

eskatzen dizut,

eta gure desgaitasunak baldintzatu gabe

ikasteko aukera izan dezagun.



ABENDUA

ZER ESKATZEN DUGU GABONETAN?

Gabonak familian egoteko garaia da, ospatzeko eta ikasten jarraitzeko garaia. Aste hauetan, ilusioz eta pozik itxaroten dugu Jesusen jaiotza. Haur guztientzat onena nahi izan zuen beti Jesusek, eta, haur guztiek aukera berberak izan ditzaten, garrantzitsua da eskolara joan ahal izatea.

Otoitza

Jesus laguna,

Gabonetako jai handi honetan

opari bakarra eskatu nahi dut:

haur guztiek izan dezatela

eskolara joateko aukera.

Ozen esan nahi dut,

denek entzun dezaten nire eskaera,

eta inor ez dadin atzean gelditu.



GARIZUMA IRAKASLEEN ALDE, JESUSEN ANTZERA BORROKA EGIN DEZATEN!

Garizumako egun hauetan, Pazkoa ospatzeko prestatzen gara, eta Jesus nola bizi izan zen eta zeren alde borrokatu zen gogoratzen dugu. Berak nahi du haur guztiak eskolara joatea, eta gure irakasleek bide horretan irakats diezagutela, gure ondoan egonez eta lagunduz.

Gaur, irakasle guztien alde eskatu nahi dugu, haur batzuekin bidegabe jokatu ez dezaten, haiei laguntzen ez dakitelako.

OTOITZA

Jesus laguna, gure irakasleen alde

eskatzen dizugu gaur.

Lagun iezaiezu haur guztiei

hobeto ulertzen,

bereziki premia bereziak

dituztenei.

Horrez gain, irakasleak beren zereginean

zoriontsuak ere izan daitezen eskatu nahi dizut.



PAZKOA IZAN GAITEZEN SOLIDARIO.

Pazko-garaia da laster, aldatzeko gonbita egiten digun une garrantzitsua. Eta orain inoiz baino gehiago, zailtasunak dituzten haur guztiak ekarri nahi ditugu gogora, behar duten laguntza aurki dezaten.

OTOITZA

Jesus laguna,

haur guztien alde eskatu nahi dizut gaur,

zailtasunak dituzten nire lagun guztien alde,

hemengoak nahiz beste toki batekoak,

nire antzera, eskolan ikasteko

eta ondo pasatzeko aukera izan dezaten.

